

Gehiengo sindikalak Bilduren hautagai-zerrendak legez kanpo jartzea errefusatu du

Gehiengo sindikalak guztiz errefusatu du Auzitegi Gorenaren erabakia, zeinak Bilduri hauteskundeetan parte hartzea galarazi egin baition.

Erabaki hau Rodríguez Zapateroren gobernuaren erabaki politiko baten ondorio da; izan ere, euskal auzian Zapaterok goitik behera politikako eta hedabideetako eskuin muturrak ezartzen dion agenda betetzen baitu. Espainiako gobernuak, gainera, epaileen esku utzi du erabaki hori, parlamentuko oposizioaren presioa gainetik kentzeko, koldarkeria nabarmena erakusten duelarik.

Euskal gehiengo sindikalak eutsi egingo dio bere ahaleginari: eskubide demokratikoen alde eta aukera guztien parte hartze politikoa defendituz, alderdiko planteamendurik gabe.

Azkenik, gehiengo sindikalak espainiar gobernuari exijitzen dio gure herriko egoera politikoaren arabera joka dezala, eta normalizazio eskenatoki baten aldeko konpromisoa har dezala, non besteak beste herritar guztien parte hartze politikorako eskubidea bermatuko den.

Horregatik, dei egiten diogu langile-klase guztiari erabakion aurkako jarrera adieraz dezan eta euskal gehiengo sindikalak deitu dituen agerraldietan parte har dezan, Hego Euskal Herriko lau hiriburuetan, goizeko 11.30etan, baita enpresa eta sektoreetan adosten diren bilkuretan ere. Gehiengo sindikalaren lema honakoa izango da:

La mayoría sindical rechaza la ilegalización de las candidaturas de Bildu

La mayoría sindical vasca rechaza de plano la resolución judicial del Tribunal Supremo por la que se impide a Bildu concurrir en el proceso electoral.

Esa resolución parte de una decisión política del ejecutivo de Rodríguez Zapatero que, en relación con la cuestión vasca, cumple a rajatabla la agenda que le marca la extrema derecha política y mediática. El gobierno español además, ha trasladado a la judicatura esa decisión para quitarse la presión de la oposición parlamentaria, en un acto de auténtica cobardía.

La mayoría sindical vasca reitera su apuesta por los derechos democráticos, por la participación política de todas las opciones, sin planteamientos partidarios.

La mayoría sindical exige, finalmente, al gobierno español, que esté a la altura de las circunstancias políticas de nuestro país, y se comprometa con un escenario de normalización en el que estén garantizados, entre otros elementos, el derecho de participación política de toda la ciudadanía.

Por ello, hacemos un llamamiento al conjunto de la clase trabajadora a mostrar su rechazo ante estas decisiones y a participar en las concentraciones convocadas por la mayoría sindical vasca en las 4 capitales de Hego Euskal Herria a las 11,30 horas, y también en las concentraciones que se acuerden en las empresas y sectores. El lema de la mayoría sindicales.

ESKUBIDE GUZTIAK DENONTZAT, ILEGALIZAZIORIK EZ!

ELA-LAB-STEE/EILAS-EHNE-HIRU